2025ZAUN0055

# *BIDAIARIEN AUTOBUS BIDEZKO GARRAIO PUBLIKOA HOBETZEKO AZTERLANAREN KONTRATAZIOA*
# CONTRATACIÓN DEL ESTUDIO DE MEJORA DEL TRANSPORTE PUBLICO DE VIAJEROS EN AUTOBÚS

**– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –**

| | |
|---|---|
| ***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA** | OBRA, MANTENTZE ETA AZPIEGITURA ARLOA / AREA DE OBRAS, MANTENIMIENTO E INFRAESTRUCTURAS |
| ***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE** | 2025ZAUN0055 |

## 1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da autobus bidezko bidaiarien hiriko garraioa hobetzeko azterlan tekniko bat egitea. Autobus-garraio konbentzionalaz gain, Irungo landaguneetako eskariaren araberako garraioa eta taxibus-zerbitzua ere aztertuko dira.

Azterlanak egungo garraio publikoaren sarea ebaluatuko du, hura hobetzeko aukerak identifikatuko ditu eta aurreikusitako hirigintzako proiektuen araberako moldaketak proposatuko ditu.

Gainera, landaguneetako biztanleen mugikortasun-beharrak aztertuko dira, eskariaren araberako garraio-sistemaren eraginkortasuna eta taxibus-zerbitzuaren funtzionamenduari erreparatuta, horien operagarritasuna hobetzeko eta hiriko garraioan hobeto integratzeko, konponbide berritzaileen bidez.

## 1.ª- OBJETO DEL CONTRATO

El presente contrato tiene por objeto la realización de un estudio técnico de mejora del transporte urbano de viajeros en autobús, incluyendo en el mismo además del transporte de viajeros en autobús convencional, el análisis del transporte a la demanda en las zonas rurales y del servicio Taxi-bus en el municipio de Irun.

El estudio deberá evaluar la red actual de transporte público, identificar oportunidades de optimización y proponer adaptaciones ante futuras ampliaciones urbanísticas previstas.

Asimismo, se analizarán las necesidades de movilidad de la población del entorno rural, la eficacia del sistema de transporte a la demanda y el funcionamiento del servicio Taxi-bus, con el fin de mejorar su operatividad e integración con el transporte urbano mediante la posible implantación de soluciones innovadoras.

## 2.- EGIN BEHARREKO LANAK

### 2.1 Egungo egoeraren diagnostikoa

✓ Hiriko autobus-zerbitzuaren eskariaren eta eskaintzaren analisia.

## 2.ª-TRABAJOS A REALIZAR

### 2.1 Diagnóstico de la situación actual

✓ Análisis de la oferta y demanda del servicio de autobuses urbanos.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: 2204-QC8Q-0RB8-RNVR

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (21/08/2025 13:54 CEST)

✓ Landaguneetako eskariaren araberako garraio-sistemaren ebaluazioa, irisgarritasuna, maiztasunak eta erabiltzaileen satisfazioa barne.
✓ Taxibus-zerbitzuaren analisia, egungo funtzionamendua, eskaria, estaldura, efizientzia eta erabiltzaileen satisfazioa barne.
✓ Zerbitzu guztien puntu kritikoen eta hobetu beharreko alderdien identifikazioa.

**2.2 Hiriko autobus-zerbitzuaren analisia eta hobekuntzak:**

✓ Ibilbide, maiztasun eta ordutegien optimizazioa.
✓ Gaueko lineen berariazko analisia, eskaria, estaldura, efizientzia eta hobetzeko aukerak ebaluatuta.
✓ Irisgarritasuna eta beste garraio batzuekiko konektagarritasuna hobetzeko neurriak.
✓ Garraio publikoaren erabilera sustatzeko estrategiak.

**2.3 Hirigintzako etorkizuneko proiektuen inpaktuaren analisia:**

✓ Hiriaren hazkundeak garraio-eskarian duen eraginaren ebaluazioa.
✓ Autobus sarea handitzeko eta linea berriak sortzeko proposamenak.
✓ Zerbitzua modu progresiboan egokitzeko gomendioak.
✓ Hiriko garraio-sisteman integratzeko aukeren azterketa, eredu berritzaileak esploratuta.

**2.4 Landaguneetako eskariaren araberako garraioaren analisia eta hobekuntzak:**

✓ Eskariaren araberako egungo garraio-ereduaren eta hiriko garraioa duen integrazioaren ebaluazioa.
✓ Ibilbideak, ordutegiak eta erreserba egiteko sistemak optimizatzeko proposamenak.
✓ Zerbitzuaren irisgarritasuna eta estaldura hobetzeko estrategiak, landaguneetako biztanleen beharren arabera.

✓ Evaluación del sistema de transporte a la demanda en el entorno rural, incluyendo su accesibilidad, frecuencias y niveles de satisfacción de los usuarios.
✓ Análisis del servicio Taxi-bus, evaluando su funcionamiento actual, demanda, cobertura, eficiencia y grado de satisfacción de los usuarios.
✓ Identificación de puntos críticos y necesidades de mejora en todos los servicios.

**2.2 Análisis y mejoras en el servicio de autobuses urbanos**:

✓ Optimización de itinerarios, frecuencias y horarios.
✓ Análisis específico de las líneas nocturnas, evaluando su demanda, cobertura, eficiencia y posibles mejoras.
✓ Medidas para mejorar la accesibilidad y la conectividad con otros modos de transporte.
✓ Estrategias para fomentar el uso del transporte público.

**2.3 Análisis del impacto de futuras ampliaciones urbanísticas:**

✓ Evaluación de la influencia del crecimiento urbano en la demanda de transporte.
✓ Propuestas de ampliación de la red de autobuses y creación de nuevas líneas.
✓ Recomendaciones para la adaptación progresiva del servicio.
✓ Estudio de su posible integración dentro del sistema de transporte urbano, explorando modelos innovadores.

**2.4 Análisis y mejoras en el transporte a la demanda en el entorno rural**

✓ Evaluación del actual modelo de transporte a la demanda y su integración con el transporte urbano.
✓ Propuestas de optimización en rutas, horarios y sistemas de reserva.
✓ Estrategias para mejorar la accesibilidad y cobertura del servicio en función de las necesidades de la población rural.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: 2204-QC8Q-0RB8-RNVR
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (21/08/2025 13:54 CEST)

### 2.5 Taxibus-zerbitzuaren analisia eta hobekuntzak

✓ Taxibus-zerbitzuaren ebaluazioa, kontuan izanik zer eragin duen autobus-zerbitzurik gabeko auzoetako mugikortasunean eta zer-nolako lotura eskaintzen duen ospitalera eta hirigunera joateko.
✓ Zerbitzua emateko modua hobetzeko proposamena, hala nola ibilbideen optimizazioa, erreserba digitalak edo estaldura zabaltzea.
✓ Hiriko garraio-sisteman integratzeko aukeren azterketa, eredu berritzaileak esploratuta, hala nola ibilgailu partekatuak, erreserbatzeko sistema malguak edo taxi elektrikoen flota bat..

### 2.6 Berrikuntzari eta jasangarritasunari buruzko proposamena

✓ Zerbitzua hobetzeko teknologiak txertatzea (txartel elektronikoak, erreserba digitalak, denbora errealean emandako informazioa, etab).
✓ Mugikortasun jasangarriko alternatiben ebaluazioa (ibilgailu elektrikoak, bus-erreiak, intermodalitate-sistemak, etab.).

### 2.7 Emaitzen txostena eta aurkezpena

✓ Txosten xehatu bat idatziko da, ondorioak eta jarduteko proposamenak bilduta.
✓ Administrazio kontratatzaileari aurkeztuko zaio.

Azterlan hori oinarri izango da hiriko garraioa planifikatzeko eta hobetzeko, autobusak, landaguneetako eskariaren araberako garraio-sistema eta taxibus-zerbitzua kontuan hartuta, herritarren beharrei erantzungo dien mugikortasun eraginkor eta irisgarria bermatzeko.

## 3.-AURREKARIAK

Azken urteetan, erronka handiak izan ditu hiriko eta landaguneetako mugikortasunak, hazkunde demografikoa, hiriaren zabalpena eta joan-etorrietarako ohitura-aldaketak direla eta. Testuinguru horretan, garraio-sistema publikoak sakon berrikusi behar dira, hala hiriguneetan nola landaguneetan,

### 2.5 Análisis y mejoras del servicio Taxi-bus

✓ Evaluación del servicio Taxi-bus, incluyendo su impacto en la movilidad de los barrios sin cobertura de autobús y su conexión con el Hospital Comarcal y el centro urbano.
✓ Propuesta de mejoras en la operativa del servicio, como optimización de rutas, reservas digitales o ampliación de cobertura.
✓ Estudio de su posible integración dentro del sistema de transporte urbano, explorando modelos innovadores como vehículos compartidos, sistemas flexibles de reserva o flotas de taxis eléctricos.

### 2.6 Propuesta de innovación y sostenibilidad

✓ Incorporación de tecnologías para la mejora del servicio (billetaje electrónico, reservas digitales, información en tiempo real, etc.).
✓ Evaluación de alternativas de movilidad sostenible (vehículos eléctricos, carriles bus, sistemas de intermodalidad, etc.).

### 2.7 Informe final y presentación de resultados

✓ Elaboración de un informe detallado con conclusiones y propuestas de actuación.
✓ Presentación ante la Administración contratante.

Este estudio servirá de base para la toma de decisiones estratégicas en la planificación y mejora del transporte urbano en autobús, del sistema de transporte a la demanda en las zonas rurales y del servicio Taxi-bus, garantizando una movilidad eficiente, accesible y adaptada a las necesidades de la población.

## 3.ª- ANTECEDENTES

En los últimos años, la movilidad urbana y rural ha enfrentado importantes retos derivados del crecimiento demográfico, la expansión urbanística y los cambios en los hábitos de desplazamiento de la población. En este contexto, los servicios de transporte público, tanto en entornos urbanos como

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: 2204-QC8Q-0RB8-RNVR
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (21/08/2025 13:54 CEST)

ahuleziak identifikatzeko, hobetzeko aukerak aurkitzeko eta garapen-ildo estrategikoak definitzeko.

Hiriko autobus-zerbitzua funtsezko elementua da udalerriko mugikortasunaren egituran, hirigunera eta ezinbesteko ekipamendu batzuetara joateko modua eskaintzen baitu, baita auzoen arteko lotura ere. Alabaina, estaldurarekin, efizientzia operatiboarekin eta erabiltzaileen satisfazioarekin lotutako zenbait muga hauteman dira, zerbitzuaren berrikuspen integrala justifikatzen dutenak.

Aldi berean, landaguneak erronka espezifikoak ditu, lurralde zabala eta populazio barreiatua direla eta zailagoa baita zerbitzu erregular bideragarriak eskaintzea. Eskariaren araberako garraioaren eta taxibus-zerbitzuaren bidez, ahalegina egin zen behar horiei erantzuteko, baina zorrotz ebaluatzekoak dira horien funtzionamendua eta irisgarritasuna, baita landaguneetako biztanleen espektatibei egokituak dauden edo ez.

Gainera, egungo testuinguruan ezinbestekoa da jasangarritasunarekin eta berrikuntza teknologikoarekin lotutako irizpideak txertatzea, baita hiriaren etorkizuneko zabalpenek garraio-sarean izan dezaketen inpaktua aurreikustea ere. Mugikortasun inklusibo, efiziente eta ekologikoago bat sustatu behar da, informazio- eta kudeaketa-sistema modernoetan oinarrituta, erabiltzaileen esperientzia hobetzeko.

Azterlan hau, beraz, tresna estrategiko gisa planteatzen da, garraio publikoaren egun egoera diagnostikatzeko, modalitate guztietan, puntu kritikoak identifikatzeko eta sistema globalki hobetzeko konponbideak proposatzeko, arreta berezia jarrita irisgarritasunean, konektagarritasunean, jasangarritasunean eta herritarren satisfazioan.

## 4.- GARRAIO PUBLIKOAREN DIAGNOSTIKOA EGITEKO ETA HOBETZEKO BEHARREN PROGRAMA

Dokumentu honetan bildu dira udalerriko garraio publikoaren sistemaren diagnostikoa egiteko eta

rurales, requieren una revisión profunda que permita identificar debilidades, oportunidades de mejora y líneas estratégicas de desarrollo.

El sistema de autobuses urbanos constituye un elemento clave en la estructura de movilidad del municipio, facilitando el acceso al centro urbano, a equipamientos esenciales y conectando diferentes barrios. Sin embargo, se han detectado limitaciones relacionadas con la cobertura, la frecuencia, la eficiencia operativa y la satisfacción de los usuarios, que justifican una revisión integral del servicio.

En paralelo, el entorno rural presenta desafíos específicos vinculados a la dispersión territorial, la baja densidad de población y la dificultad para ofrecer servicios regulares viables. El sistema de transporte a la demanda, incluido el servicio Taxi-bus, ha buscado dar respuesta a estas necesidades, pero requiere una evaluación rigurosa de su funcionamiento, accesibilidad y grado de adaptación a las expectativas de la población rural.

Además, el contexto actual exige incorporar criterios de sostenibilidad e innovación tecnológica, así como anticipar el impacto de futuras ampliaciones urbanísticas sobre la red de transporte. Es necesario fomentar una movilidad más inclusiva, eficiente y ecológica, apoyada en sistemas de información y gestión modernos que mejoren la experiencia del usuario.

Este estudio se plantea, por tanto, como una herramienta estratégica para diagnosticar la situación actual del transporte público en sus distintas modalidades, identificar puntos críticos y proponer soluciones orientadas a una mejora global del sistema, con especial atención a la accesibilidad, la conectividad, la sostenibilidad y la satisfacción ciudadana.

## 4.ª- PROGRAMA DE NECESIDADES PARA EL DIAGNÓSTICO Y MEJORA DEL TRANSPORTE PÚBLICO

Este documento define los requerimientos esenciales para llevar a cabo el estudio de diagnóstico y mejora

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: 2204-QC8Q-0RB8-RNVR
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (21/08/2025 13:54 CEST)

hobetzeko azterlana idazteko ezinbesteko eskakizunak, hiriko garraioari, landaguneetako eskariaren araberako zerbitzuei eta taxibusari dagozkienak. Helburua mugikortasun eraginkorrago bat lortzea da, gizartearen, lurraldearen eta ingurumenaren alorreko behar berriei egokitzen zaiona.

### 4.1 Behar orokorrak:

✓ Garraio publikoak egun nola funtzionatzen duen adierazten duen diagnostiko argi, eguneratu eta osatu bat edukitzea, hala hiriari nola landaguneei dagokienez.

✓ Informazio kuantitatiboa (eskari mailak, maiztasunak, estaldura, erabiltzaileen satisfazioa, etab.) eta kualitatiboa (herritarren iritziak, izaten dituzten arazoak, etab.) biltzea.

✓ Hobetzeko proposamen errealista eta egingarriak diseinatzea, alderdi operatiboak, teknologikoak eta antolakuntzakoak kontuan hartuta.

✓ Funtsezko pertsonen parte-hartzea bermatzea: erabiltzaileak, zerbitzuaren operatzaileak eta Udaleko teknikariak, auzo-elkarteak, adinekoen kolektiboak, desgaitasuna duten pertsonen kolektiboak, merkatari eta ostalarien elkarteak, etab.

✓ Jasangarritasunarekin, guztien irisgarritasunarekin, energiaren erabilera eraginkorrarekin eta teknologia berritzaileen aprobetxamenduarekin lotutako irizpideak txertatzea.

### 4.2 Behar espezifikoak, lan arloaren arabera

#### 4.2.1. Autobus bidezko hiriko garraioa

✓ Sarea gaur egun nola funtzionatzen ari den berrikustea: ibilbideak, ordutegiak, geltokiak eta beste bitarteko batzuekiko konexioak.

✓ Ibilbide saturatuak eta nahikoa eskaririk ez dutenak identifikatzea.

✓ Zenbatek erabiltzen duen eta doikuntzarik behar duen.

✓ Ibilbide, maiztasun edo ordutegi aldaketak proposatzea, zerbitzua eraginkorragoa izan dadin.

✓ Beste garraiobide batzuekiko lotura hobetzea, hala

del sistema de transporte público en el municipio, abarcando el transporte urbano, los servicios bajo demanda en zonas rurales y el Taxi-bus. El objetivo es lograr una movilidad más eficiente, adaptada a las nuevas necesidades sociales, territoriales y medioambientales.

### 4.1 Necesidades generales:

✓ Contar con un diagnóstico claro, actualizado y completo de cómo está funcionando actualmente el transporte público, tanto en la ciudad como en las zonas rurales.

✓ Reunir información cuantitativa (como niveles de demanda, frecuencias, cobertura y satisfacción de usuarios) y cualitativa (como opiniones ciudadanas y obstáculos que enfrentan los usuarios).

✓ Diseñar propuestas de mejora que sean realistas y se puedan implementar, abarcando aspectos operativos, tecnológicos y organizativos.

✓ Incluir la participación de personas clave: usuarios, operadores del servicio y personal técnico del municipio, así como también Asociaciones vecinales, colectivos de personas mayores, Colectivos de personas con discapacidad, Asociaciones de comerciantes y Hosteleros, etc.

✓ Incorporar criterios de sostenibilidad, accesibilidad para todas las personas, uso eficiente de energía y aprovechamiento de tecnologías innovadoras.

### 4.2 Necesidades específicas por área de trabajo

#### 4.2.1. Transporte urbano en autobús

✓ Revisar cómo está funcionando actualmente la red: rutas, horarios, paradas y conexiones con otros medios.

✓ Identificar rutas que están saturadas o que no tienen suficiente demanda.

✓ Analizar el servicio nocturno: cuánta gente lo usa y si necesita ajustes.

✓ Proponer cambios en recorridos, frecuencias y horarios que hagan más eficiente el servicio.

✓ Fortalecer la conexión con otros medios de

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 2204-QC8Q-0RB8-RNVR

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (21/08/2025 13:54 CEST)

nola bizikleta, trena edo auto partekatuak.

### 4.2.2 Landaguneetako eskariaren araberako garraioa

✓ Gaur egun nola jarduten duen ebaluatzea: nola sartzen den, zein fidagarria den eta bidaiak nola erreserbatzen diren.

✓ Erabiltzeko oztopoak hautematea (teknologikoak, ordutegi aldekoak edo kokapen geografikoari lotuak).

✓ Landa-ingurunearen baldintzei hobeto erantzungo dieten sistema malguagoak eta irisgarriagoak planteatzea.

✓ Hiriko garraio-sisteman integratzeko aukerak ikustea.

### 4.2.3 Taxibus-zerbitzua

✓ Autobus-zerbitzurik gabeko eremuen estaldura berrikustea.

✓ Puntu garrantzitsuetara joateko lotura nola egiten den ebaluatzea (adibidez, hirigunea edo ospitalea).

✓ Eraginkortasun operatiboa eta erabiltzaileen satisfazioa neurtzea.

✓ Hobekuntza proposatzea ibilbideetan, erreserba-sisteman, teknologia txertatzeko edo flota berritzeko.

✓ Garraio publiko erregularrean integratzeko aukera aztertzea.

### 4.2.4 Hirigintzako garapen berriak

✓ Hiriaren epe labur eta ertaineko hazkunde-planak aztertzea.

✓ Aldaketa horiek garraio publikoaren eskariari nola eragingo dioten aurreikustea.

✓ Autobus sarea zabaltzeko eta ibilbide berriak sortzeko irizpideak ezartzea.

### 4.2.5 Berrikuntza eta jasangarritasuna

✓ Teknologia erabilgarriak aztertzea, hala nola ordainketa elektronikoa, erreserba egiteko aplikazioak, GPSak eta informazioa denbora errealean emateko sistemak.

✓ Ibilgailu elektrikoak edo hibridoak erabiltzen

transporte como la bici, el tren o los autos compartidos.

### 4.2.2 Transporte a la demanda en zonas rurales

✓ Evaluar cómo opera actualmente: cómo se accede, qué tan confiable es y cómo se reservan los viajes.

✓ Detectar barreras de acceso, ya sean tecnológicas, horarias o relacionadas con la ubicación geográfica.

✓ Plantear sistemas más flexibles y accesibles que respondan mejor a las condiciones del entorno rural.

✓ Ver posibilidades de integración con el sistema de transporte urbano.

### 4.2.3 Servicio de Taxi-bus

✓ Revisar la cobertura de las zonas que no cuentan con rutas de autobús.

✓ Evaluar cómo se realiza la conexión con puntos importantes como el hospital o el centro de la ciudad.

✓ Medir su eficiencia operativa y qué tan satisfechos están los usuarios.

✓ Proponer mejoras en rutas, sistema de reservas, incorporación de tecnología y renovación de la flota.

✓ Analizar su posible integración como parte del transporte público regular.

### 4.2.4 Nuevos desarrollos urbanos

✓ Estudiar los planes de crecimiento urbano a corto y medio plazo.

✓ Prever cómo estos cambios afectarán a la demanda de transporte público.

✓ Establecer criterios para ampliar la red de autobuses y crear nuevas rutas.

### 4.2.5. Innovación y sostenibilidad

✓ Explorar tecnologías útiles como el pago electrónico, apps para reservar, GPS y sistemas de información en tiempo real.

✓ Identificar oportunidades para incorporar vehículos eléctricos o híbridos.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: 2204-QC8Q-0RB8-RNVR

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (21/08/2025 13:54 CEST)

hasteko aukerak identifikatzea.

✓ Eskaria kudeatzeko eta mugikortasun kontzienteago bat sustatzeko ekintzak kontsideratzea.

✓ Azpiegituretako hobekuntzak berrikustea: errei bereziak, geltoki funtzionalagoak, etab.

**4.2.6 Emaitzak eta jarraipena.**

✓ Txosten argi eta egituratu bat idaztea, erabakiak hartzeko gida gisa balio duena.

✓ Azterlana publikoki aurkeztea, maila teknikoan eta politikoan.

✓ Hobekuntza-proposamenak modu gradualean ezartzeko plan bat definitzea.

## 5.- PROIEKTUA IDATZIKO DUEN LANTALDEA

Lantaldean honako hauek egongo dira gutxienez:

**Proiektuaren koordinatzailea.** Gradua edo lizentziatura izango du ingeniaritza zibilean, bide, kanal eta portuen ingeniaritzan, edo ikasketa baliokide batean, eta gutxienez 5 urteko esperientzia garraio publikoko sistemen plangintzan eta diseinuan. Esperientzia egiaztagarria izango du antzeko azterlanak zuzentzen, funtzio hauekin: Azterlana teknikoki eta metodologikoki zuzentzea, lantalde teknikoak koordinatzea, proposamenak baliozkotzea eta administrazioarekin harremanetan egotea.

**Hiriko garraio eta mugikortasuneko espezialista.** Gradua izango du ingeniaritza zibilean, garraioaren ingeniaritzan, geografian, hirigintzan, edo ikasketa baliokide batean, eta gutxienez 5 urteko esperientzia hiriko garraio sare publikoak aztertzen eta hobetzeko proposamenak egiten, funtzio hauekin: hiriko autobus-zerbitzuak ebaluatzea, ibilbideak eta maiztasunak optimizatzea, integrazio modala.

**Parte-hartze eta analisi sozialeko teknikaria.** Titulazioa izango du soziologian, gizarte-lanean, antropologia edo ikasketa baliokide batean, eta gutxienez 3 urteko esperientzia herritarrek parte hartzeko prozesuetan edo erabiltzaileen pertzepzioa

✓ Considerar acciones para gestionar la demanda y fomentar una movilidad más consciente.

✓ Revisar mejoras en infraestructura: carriles exclusivos, paradas más funcionales, entre otras.

**4.2.6 Resultados y seguimiento.**

✓ Elaboración de un informe claro y estructurado que sirva como guía para la toma de decisiones.

✓ Presentación pública del estudio tanto a nivel técnico como político.

✓ Definir un plan para implementar gradualmente las propuestas de mejora.

## 5.ª - EQUIPO REDACTOR

El equipo redactor deberá estar compuesto como mínimo por:

**Coordinador/a del proyecto** con una titulación mínima de grado o Licenciatura en Ingeniería Civil, Ingeniería de Caminos, Canales y Puertos, o equivalente y experiencia mínima de 5 años de experiencia en planificación y diseño de sistemas de transporte público. Experiencia contrastada en dirección de estudios similares con las siguientes funciones: Supervisión técnica y metodológica del estudio, coordinación de los equipos técnicos, validación de propuestas y contacto con la Administración.

**Especialista en transporte y movilidad urbana** con titulación mínima de Grado en Ingeniería Civil, Ingeniería de Transporte, Geografía, Urbanismo o similar y experiencia mínima de 5 años en análisis de redes de transporte público urbano y elaboración de propuestas de mejora con las siguientes funciones: Evaluación del servicio de autobuses urbanos, optimización de itinerarios, frecuencias, integración modal.

**Técnico/a en participación y análisis social** con titulación mínima de Sociología, Trabajo Social, Antropología o similar y experiencia mínima de 3 años en procesos de participación ciudadana o estudios de percepción y satisfacción del usuario con

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: 2204-QC8Q-0RB8-RNVR
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (21/08/2025 13:54 CEST)

eta satisfazioa neurtzeko azterlanetan, funtzio hauekin: galdetegien diseinua, talde fokalak, satisfazioaren analisia eta hobetzeko proposamenak, erabiltzailearen ikuspegitik.

las siguientes funciones: Diseño de encuestas, grupos focales, análisis de satisfacción y propuestas de mejora desde el punto de vista del usuario.

**Informazio geografikoko sistemetako eta datu-analisietako teknikaria.** Titulazioa izango du ingeniaritza geografikoan edo topografikoan, ingeniaritza informatikoan, geografian edo ikasketa baliokide batean, informazio geografikoko sistemetako prestakuntzarekin, eta gutxienez 3 urteko esperientzia garraioari aplikatutako analisi espazialean, funtzio hauekin: kartografia, estaldura geografikoaren analisia, datuen bisualizazioa eta mapa tematikoen sorkuntza.

**Técnico/a en SIG y análisis de datos** con titulación mínima en Ingeniería Geográfica o Topografía, Ingeniería Informática, Geografía, o equivalente con formación en Sistemas de Información Geográfica y experiencia mínima: 3 años en análisis espacial aplicado al transporte con las siguientes funciones: Cartografía, análisis de cobertura geográfica, visualización de datos y generación de mapas temáticos.

Tituluak aipatutakoak edo Espainiako Goi Mailako Hezkuntzako Prestakuntzaren Esparruko baliokideak izan ahalko dira, eta dagokion unibertsitate-agintaritzak ziurtatuta egongo dira.

Las titulaciones podrán ser las mencionadas o sus equivalentes del Marco español de Cualificaciones para la Educación Superior, y estarán certificadas por la autoridad universitaria correspondiente.

Kontratuaren arduradun teknikoaren oniritzia ez badu, esleipendun gertatzen den aholkularitza-enpresak ezingo du ez kanpoan utzi ez ordezkatu proiektua idazteko proposatzen duen taldeko kiderik.

La empresa consultora que resulte adjudicataria no podrá prescindir de ninguno de los integrantes del equipo redactor propuesto, ni sustituirlo por otro sin la aprobación del Responsable Técnico del Contrato.

Laguntzaileak proiektuaren egilearen enpresa berekoak edo beste batekoak izan ahalko dira. Beste enpresa batekoak badira, laguntza emateko konpromisoa hartzeko adierazpena aurkeztu beharko dute.

Los/as colaboradores/as podrán pertenecer a la misma empresa que la persona autora del proyecto o no, en cuyo caso deberán presentar su declaración de compromiso de colaboración.

Eskaintzan aurkeztutako taldearen parte hartzea kontratuak irauten duen denbora guztian mantenduko da.

La participación del equipo presentado en la oferta deberá de mantenerse a lo largo de todo el contrato

Proiektua idazteko adskribatu beharreko **gutxieneko lantaldearen** osaera aurkeztu beharko da, curriculum vitaea eta antzeko lanetan duten esperientzia eta prestakuntza zehaztuta. Era berean, berariaz, kide bakoitzak bete beharreko funtzioak eta aurreikusitako dedikazioa adieraziko dira. Lantaldearen egitura eta osaera konpromiso formaltzat hartuko dira, esleipendun gertatuz gero.

Se presentará la composición del equipo humano **mínimo exigido** y que se va a adscribir a la redacción del proyecto, con detalle relativo a su curriculum vitae, experiencia y cualificación en trabajos similares. Así mismo, se indicarán expresamente las funciones a realizar y la dedicación prevista. La estructura y composición del equipo de trabajo, se entenderá como un compromiso formal, en caso de resultar adjudicatarios.

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
IRUNGO UDALAren Zigilu Elektronikoa - Sello Electrónico del AYUNTAMIENTO DE IRUN (21/08/2025 13:54 CEST)
Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 2204-QC8Q-0RB8-RNVR